Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixenta Larrañaga Zarraoa

Bergara, Gipuzkoa (1931)

Aurkibidea

Biografia

Elorrioko Gazeta auzoko Etxebarri baserrian jaiotakoa. Ezkondu ondoren Bergarako Arane auzoko Aranegoenengoa baserrira joan zen bizi izatera. Fede handiko emakumea, antzinako kontuak oso ondo gogoratzen ditu. 1983an kanta zaharrak jasotzeko egin zitzaion grabazioa.

Zintak

BER-037

- **Proiektua**: Bergara inguruko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Data**: 1983-01-01
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Urkiola, Argiñe

Pasarteak

1. Kanturako zaletasuna familian

- **Erref**: BER-037/002
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:01:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Aitak umore ona zuenean, kantuan egiten zuen. Bixenta eta ahizpa aitarekin ardizain joaten ziren. Elorriokoa da izatez, baina 13 urterekin Bergarara joan zen neskame. Bixentarekin batera, bi ahizpa ere joan ziren neskame etxe berera (10 eta 11 urte zituztela). Orduz geroztik Bergaran bizi da. Abesten dituen kantak duela 50 urte aitari entzundakoak dira.

2. "Errekonduan errota" trikiti-koplak

- **Erref**: BER-037/004
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:01:48. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
"Errekonduan errota" esanez hasten diren trikiti-kopla ederrak abesten ditu Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Errekonduan errota...
- Kantau ala esan bakarrik?
- Ez, kantau, kantau... Bai.

haren gaiñian harria
harri gaiñian txoria
neskatxa mutil zale mutil...
neskatxa mutil zale engainagarria
matrailatxo gorria
krabeliñatxua bezelakua.

Larrosatxuak bost orri
krabeliñiak hamabi
andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.
Andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.

Ederregia zera zu
soluan biharrerako,
hartizu kaballerua
kalian pasiorako.

Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.
Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.

Begira nago, begira,
goiko kamino berrira.
Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?
Begira nago, begira,
goiko kamino berrira
noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Ene maitia zer dezu?
Kolore txarra daukazu.
Kolore txarra daukazu.
Koloria mudatzeko
metal-ura edan bihar dezu.

Begira nago, begira,
goiko kamino berrira.
Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Tristerik nago tristerik,
tristerik eta bakarrik,
nobiua daukat gaixorik.
Oillo bat hil detsat baiña
ez duela mejoriarik.
Tristerik eta bakarrik.
Adiskide txarrakin baiño
hobe da bizi bakarrik.

3. "Gaztia nintzanian" trikiti-koplak

- **Erref**: BER-037/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
"Gaztia nintzanian" esanez hasten diren trikiti-koplak abesten ditu Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Gaztia nintzanian, denbora batian,
ez nitzan sosegatzen ezkondu artian.

Ezkondu eta lehelengo gabian
Azak eta porruak [Orio] kalian.
Hamaika txorakeri egin degu
gaztiak giñan artian.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzan hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Artajorrara [nua] lur barri-barrira,
artajorrara [nua] lur barri-barrira,
bedarra jorratu ta artua sasira.
Ole morena, artua sasira.
Bedarra jorratu ta artua sasira.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzan hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Arrateko pikuak hiru adar ditu,
Arrateko pikuak hiru adar ditu,
neska mutilzaliak hankak ariñak ditu.
Ai, ai, ai hankak ariñak ditu.

4. "Mendiri mendi laiñua" trikiti-koplak

- **Erref**: BER-037/006
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
"Mendiri mendi laiñua" hasiera duten trikiti-koplak abesten ditu Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Mendiri mendi laiñua
pagori pagori usua
ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.
Ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.

Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretxek ekarrikost neri
etxian bihar dan dana.
Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretxek ekarrikost neri
etxian bihar dan dana.

Goiko mendian edurra dago,
errekaldian izotza,
ni handik aparte bizi naiz eta
alegre dot nik bihotza.
Ni handik aparte bizi naiz eta
alegre dot nik bihotza.

5. "Altuan Arantzazu" kopla

- **Erref**: BER-037/007
- **Iraupena**: 0:00:10. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:06:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
"Altuan Arantzazu" porrusaldako kopla abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Altuan Arantzazu, bajuan Oñeti.
Altuan Arantzazu, bajuan Oñeti.
Zubilla(ga) barrenian tabernia beti.

6. "Maritxu nora zuaz" kanta

- **Erref**: BER-037/008
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:06:54. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
"Maritxu nora zuaz" kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Maritxu, nora zuaz,
eder galantori?
Itturrira, Bartolo,
nahi badezu etorri.
Itturrian zer dago?
Ardautxo txuria.
Biok erango degu
nahi dezun guztia.

Eran korriente ta
pagetia ahaztu
Holan tabernarikan
ezin aberastu.

7. Antzinako eta gaur egungo bizimodua

- **Erref**: BER-037/009
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:09:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:
Oraindik ere kanta zaharrak gogoratzen ditu. Antzinako eta gaur egungo bizimodua. Amari ikasitako kantak, umetxoari lo eragiteko abesten zituenak.

8. "Lotxua lo eta lo" kanta

- **Erref**: BER-037/010
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:09:19. **Bukatu**: 00:10:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:
"Lotxua lo eta lo" kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Lotxua lo ta lo.
Lotxuak engaiñatzen dau gure umetxua,
Txiki-txikitxua ta polit-politxua.
Hauxen izan bihar dau gure umetxua.
Lotxua lo ta lo.
Oin zuk eta nik gero.
Lotxua lo ta lo.
Lotxuak engaiñatzen dau haurtxo txikitxua
polit-politxua ta maite-maitetxua.
Lo egizu lo,
orain zuk eta nik gero.

9. Umeak beldurtzeko erabiltzen ziren ipuinak

- **Erref**: BER-037/011
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:14. **Bukatu**: 00:11:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
"Turkua", Plazentziako errekadista bat zen. Nahiko zakarra omen zen; eta, Bergaran behintzat, umeak sustatzeko bera zetorrela esaten zitzaien. Umetako ipuinak. "Sakamantesak".

10. `Baserritarrak gera gu´kanta

- **Erref**: BER-037/013
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:11:24. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
`Baserritarrak gera gu´ kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Baserritarrak gera gu,
baserritarrak gera gu,
kaletarra bezin ongi
soiñua jotzen degu.
Baserritarrak gera gu,
Soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Zer gera gu? Nor gera gu?
Baserritarrak gera gu.

Baserritarrak izen arren,
Soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Baserri hontan bizi gera gu,
etxe zuria eta txakurra,
iturri fresko malentiala
eta betiko bizitza.

Goizian goiz esnatzen gera,
behi marrosa, asto arrantza,
txakur zaunka eta, gaiñera,
egunakin batera
guztiok laneratzen gera.

Tarea egindakuan
itzalera erretiratzen gera.
Guztiok armonixa on baten,
pobre izen arren,
hamentxe bizi gera.

Baserritarrak gera gu,
baserritarrak gera gu,
kaletarra bezin ongi
soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Zer gera gu? Nor gera gu?
Baserritarrak gera gu.

Baserritarrak izen arren,
kaletarra bezin ongi
soiñua jo eta dantzatutzen degu.

11. `Ogi zerutik´ kanta

- **Erref**: BER-037/015
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
`Ogi zerutik´ kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
Ogi zerutik etorria,
zu zera gure poz guztia.
Ogi zerutik etorria,
zu zera gure poz guztia. (bis)
Bildots santua hara hemen,
munduko gaitza kentzearren.
Sagrariua nun dagoen,
lurra zeruaz bat egiten.
Lurra zeruaz bat egiten.

- Gero hori luziao be bada, [liburuan] jarraitzeko.
- Bai, kanta hori...
- Hasieran, ba, domekero-domekero hori kantatzen da.
- Bai, baiña dana ez da kantatzen normalian. Horixe, zeuk kantau dozuna...
- Bueno, holan, Arantzazun edo jente asko dagonian komuniua hartzen orduan bai, baiña jeneralian elizatan, ba, luzia.
- Luziaua [...], luzia...
- Bai.

12. "San Juen, San Juen" kanta

- **Erref**: BER-037/017
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:16:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
"San Juen, San Juen" kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa
San Juen, San Juen!
Arrautza bi kolkuen,
beste bi altzuen.
Subiak eta zapuak eta txar guztiak
Erre! Erre!
Artuak eta garixak eta gauza on guztiak
Gorde! Gorde!
Biba San Juen!

13. San Juan inguruko kontuak; fede kontuak

- **Erref**: BER-037/018
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:16:41. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
San Juan bezperan ohitura zen suaren gainetik salto egitea "San Juen, San Juen" abesti laburra kantatuaz. Ohiturak. Lore-sorta bedeinkatu; etxeburuan larrosekin eta garoarekin egindako gurutze bedeinkatua ipini; ur bedeinkatua bota; San Juan eguneko ihintza oinutsik hartu; sei aitagure errezatu. Fede kontuak.

Transkripzioa
- Lehen bai sasoia!
- Suan inguruan... Oin eitten da? Oin be eingo dozue zuek...
- Bai, bai. Sua eitten dou ta kantu txiki hori kantau be bai. Ta lora-sortia bedeinkatu be bai eta etxe-buruen kurutziak ipini be bai larrosakin ta garuakin. Ur bedeinkatua bota, San Juanen ihintza hartu oinutsik ortuen zihar bueltan ta sei Aitta-gure errezau.
- Zer esan dozu, San Juanen ihintza?
- Bai, San Juanen ihintza esaten dabe, neuk konfiantza haundixa dakat,...
- Zer da hori?
- Bueno, ba, ihintza da zera, zela esaten da erderaz? "Rocío" esaten dabe erderaz.
- A! San Juan eguneko ihintza.
- San Juan egun goizeko ihintza. Hori da!
- Eta beti egoten da?
- Bueno...
- Ta suertatzen ez danien?
- Ba, jeneralien. Jeneralien. Klaro, eurixa baldin bada, ez da ihintza, eurixan bustixa da, eta hego-haixia baldin badabil, ba, ihintza ez da egoten. Baiña ostiantzian, ba, ihintza jeneralian gabian, ba.... Izotz denporia be ez da ta ihintza.
- Eta ihintza, ze esan dozu...? Zelan hartu?
- Oinutsik! Oiñetakuak kendu, kanka-gorririk! Ba, ortutik edo, hola, zelaittik edo [...] edo...
- Ibili?
- Buelta bat ein. Ba! Ibili ta ibili ez, baiña... Hartu igitaixa ta garo pixkat ekartzera edo, zerak, horrek elor-arantza zurixak ekartzera edo, larrosak ekartzera ta... Gero, ba, etxe kantoien josi.
- A! Orduan, hartzeko orduen oinutsik jun...
- Bai, oinutsik jun.
- Eta horrek ze ekartzen dau, suerte ona ekartzen dau?
- Enee... Suerte ona ikaragarrixa! Jentiak ezin dau siñistu hori! Suerte ona da bat beti gustora bizi izetia. Eta askotan persona batek, fede haundiko persona bat, danok eukitzen dittuu bizitzaren kurutziak eta ezbeharrak eta nahigabiak, ezta? Baiña zuk baldin [badaukuzu] fede haundi bat, ba, zuk esaten dozu: "Ba, bueno, jangoikuan izenian. Jangoikuak horixe nahiko dau. Horixe komeniko da. Nere onerako izengo da." Ta halaxe izaten da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com